

"UPV/EHUⁿ Ikertzaileak Prestakuntzarako Kontratatzekeo Deialdia (2016)"

OHIKO GALDERAK

2016/05/20an eguneratua

GARRANTZITSUA: Eskarien kopurua handia dela kontutan hartuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako pertsonalarekin harremanetan jarri aurretik, egin kontsulta, mesedez, ohiko galderen zerrenda honetan, 2016ko maiatzaren 27 arte etengabe eguneratuko delarik.

Kontsultari erantzunik aurkitu ezean dokumentu honetan, eskatzaileek pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora jo ahal izango dute, mezuaren gaian "PIF deialdia" aipatuz.

MODALITATEAK

Zertzu modalitatetarako dago aukera deialdi honen bidez?

Egungo deialdi honek bi modalitate jasotzen ditu:

- I. modalitatea: doktorego aurreko prestakuntza orokorrean ari diren ikertzaileen kontratazioa.
- II. modalitatea: doktorego aurreko prestakuntzan ari diren ikertzaileen kontratazioa, doktorego tesia euskaraz egin dezaten.

II. modalitatean lehiatzeko ezinbestekoa izango da euskararen jakite maila ziurtatzea, C1 mailaren ziurtagiria agertuta.

ATXIKIPEN ZENTROA

BERRIA: Laguntza hau eska dezaket tesia UPV/EHUkoa ez den zentro batean egiteko, enpresa edo unibertsitatetik kanpoklo ikerkuntza zentro batean, adibidez?

Ez. Deialdiaren 2.3. oinarrian esaten denez: "Kontratatutakoa UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan egingo du".

IKASKETEN AMAIERA URTEA

BERRIA: Master ikasketarik gabe doktoretza zuzenean egiteko aukera ematen duen gradu bateko azken urteko ikaslea naiz. Deialdi honetan parte hartu dezaket?

Bai, baina hautatua suertatuz gero doktoretza programa batean matrikula egin duzula egiaztatu beharko duzu kontratua sinatu aurretik.

Masterra amaitu zeneko urtea kontatzen al da 3.3 oinarria betetzeko?

Ez. Oinarri horretan lizentziatur, ingeniaritza, arkitektura, gradu edo pareko ikasketak besterik ez da aipatzen, beroriek 2013ko ekainean edo geroago amaituta behar dutelarik.

Titulua homologatzeko data kontatzen al da 3.3 oinarria betetzeko?

Ez, ez eta homologazioarekin batera irakasgai berririk egin behar denean ere. Aipatutako 3.3 oinarria betetzeko, kontutan hartuko da ikasketen amaierako data bezala hautagaiaren jatorriko herrialdean ikasketak amaitu direnekoa.

MASTERRA

Nola egiazta dezaket masterra eskaera egiteko epearen barnean amaitu dudala?

Ez da behar. Eskatzaileak doktorego programa batean matrikulatuta dagoela egiaztatu beharko du baldin eta laguntzaren onuradun bihurtzen bada eta kontratua sinatu aurretik.

Ezin izango dut masterra irailera edo urrira arte amaitu, aurkeztu ahal dut eskaera orain?

Bai. Laguntzaren onuradun bazara, orduan agertu beharko duzu doktorego programa batean egindako matrikula.

Aurkeztu behar al da masterreko ziurtagiri akademikoa?

Ez, gradu, lizentziatura, arkitektura edo ingeniartzako ziurtagiria besterik ez da eskatuko.

DOKTOREGO PROGRAMA

BERRIA: Nola jakin dezaket doktoretza programa batean matrikulatzeko baldintzak betetzen ditudan ala ez?

Zure egoera kontsultatu ahal duzu MDE Master eta Doktorego Eskolan.

BERRIA: Oraindik ez dut doktoretza programa baterako matrikularik egin. Deialdi honetan parte hartu eta matrikula iraila-urrian zabaltzen den matrikulazio epean egin ahal dut?

Bai. Garrantzitsuena zera da: doktoretza programa batean matrikula egin duzula egiaztatu beharko duzu kontratua sinatu aurretik hautatua suertatuz gero.

Deialdi honetarako eskaera aurkeztu ahal dut doktorego programa batean matrikulatuta banago?

Onartu egingo dira doktorego programa bat egiten ari diren pertsonen eskariak. Laguntza eskuratuz gero, jada kontsumitutako prestakuntza denbora laguntzaren gehineko iraupenetik (4 urte) kenduko da.

Egiaztatu behar al dut doktorego programan matrikulatuta nagoela eskaera aurkezteko unean?

Ez. Dokumentazio hori laguntzaren onuradunei beste inori ez diogu eskatzen eta kontratua sinatu aurretik bete beharreko baldintza moduan.

Nola matrikula naiteke doktorego programa batean?

Jarraibideak ikusi eta kontsultatu ahal dituzu MDE Master eta Doktorego Eskolaren web gunean: <http://www.ehu.eus/es/web/mde/doktorego-programan-izena-ematea>

TESI ZUZENDARIA

BERRIA: Batera ezina al da tesi zuzendari batentzat deialdi honetan eskaera bat aurkeztea aurreko urteetan deialdi beran emandako laguntzekin?

Ez. 2016ko deialdian aurkeztutako eskaerak baino ez dira bateraezintzat joko.

BERRIA: 10.1 oinarrian tesi zuzendariaren doktore tituluaren kopia eskatzen da, bere doktorego tesia 1999 eta 2010 urteen artean defendatu duela egiaztatuz. Horrek esan nahi du urte horietan tesia defendatu zutenek baino ezin dutela parte hartu deialdian?

Ez dago inolako mugarik zentzu honetan. Tesia epe horretan defendatu zutenen parte hartzea sustatze aldera 5 puntu gehituko zaizkie baldintza hau betetzen duten eskatzaileei. 5 puntu horiek zuzendari bakar batengatik zenbatuko dira. Hortaz, eskatzaileek baldintza betetzen duen zuzendari bat aipatu ahalko dute eta betetzen ez duen beste bat edo baldintza betetzen ez duten zuzendari bat ala bi.

BERRIA: Zenbat tesi-zuzendari aipa ditzaket eskarian gehienez?

Eskatzaile bakoitzak bi tesi-zuzendari izan ahalko ditu gehienez.

BERRIA: Tesi-zuzendari desberdinak hauta ditzaket deialdi honetako modalitate bakoitzean parte hartzeko?

Ez.

BERRIA: Aukeratu dudan tesi-zuzendariak ez du seiurteko aktiborik, 4.4. Oinarrian agintzen den bezala. Deialdi honetan parte hartu dezake hala eta guztiz ere?

Dagoeneko UPV/EHUko doktoretza programa batean irakasle gisa ari diren tesi zuzendariak, unibertsitatearekin lotura dutenek zein kanpokoek, ez dute seiurteko aktiborik egiaztatu beharko.

Nolanahi ere, UPV/EHUko doktoretza programetan ari ez diren zuzendariak tesiak zuzentzeko gaitasuna egiaztatu beharko dute bide hauetako bat aukeratuz:

- Indarrean dagoen seiurtekoa aurkeztuz.
- Ikerketaren Arloko Errektoreordetzan eskuragarri dagoen "II. Eranskina" aurkeztuz.

Zuzendari berak eskari bat baino gehiago aurkeztu ahal du deialdi honetan?

Ez. Gainera, baldintza hau bete ezean, ezetsi egingo dira ukitutako eskari guztiak.

Tesia zuzendu ahal dit UPV/EHUtik kanpoko pertsona batek?

Bai, baina kasu horretan nahitaezkoa da bi zuzendari izatea. Horietako batek UPV/EHUkoa behar du izan eta bietako batek eskarian adierazitako doktorego programako irakasleen artean egon behar du.

Nola jakin dezaket nire tesiaren zuzendariak seiurtekoren bat aktibo duen?
Galdetu berari zuzenean.

Zer kasutan aurkeztu behar da II. eranskina?

II. eranskina aurkeztu behar da UPV/EHUtik kanpoko zuzendari bat aurkezten denean eta unibertsitate honetako doktorego programetan parte hartzen ez duenean, ez bestela. Kasu honetan, bigarren zuzendari bat izan beharko da nahitaez, UPV/EHUrekiko lotura beteko duena eta bertako doktorego programa bateko irakasle izango dena.

Nola jakin dezaket aukeratu dudan tesi zuzendariak UPV/EHUko doktorego programa batean ari dela?

Honako esteka honetan ikusi ahal duzu:

<http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza-ikaskale-berriak>

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Zer nolako ezaugarriak dituzte eskaintzen diren kontratuak?

Kontratu hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 legearen 21. artikuluari jarraitzen diote eta beren helburua doktorego tesiak egitea da. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta beste 3 urtez luzatu ahal izango da. Ordainsari gordina urtean 14.545 eurotako izango da lehen eta bigarren urteetan, eta 18.182 eurotako hirugarren eta laugarren urteetan. Kasu guztietan, ordainketa 14 hilerokotan egingo da.

Noiz hasiko litzateke nire kontratua?

Kontratuak 2017ko urtarriletik aurrera formalizatuko lirateke.

Kontratu hau bateragarria al da beste batzuekin?

Ez. Arduraldi osoko kontratu bat da eta ezin da UPV/EHUko edo kanpoko beste kontraturen batekin bateratu.

Lehenago urtarrilaren 27ko 6/2006 errege dekretuak araututako Ikertzaileen Estatutuak ezartzen duen doktorego aurreko beka bat eskuratu nuen, eskaera aurkeztu al dezaket berriro orain?

Ez.

ESKAERAK AURKEZTEA

BERRIA: Tesi zuzendarien sinadura digitalak aurkeztu ditzaket?

Digitalki sinatzeko onartutako erak ondoko hauek izango dira: NAN-e, administrazio publikoek aintzatetsitako ziurtagiri elektronikoa, eta abar. Ez dira inolaz ere eskaneatutako sinadurak onartuko paper euskarrian aurkeztu beharreko agirietan. Kasu honetan, eskuz sinatutako sinadurak eskatuko dira akatsak zuzentzeko epean.

BERRIA: Ikertu Online aplikazioaren bidez egin beharko dut nire eskaera aurten ere?

Ez. Eskatzaileek ez dute aplikazio hori erabili behar aurten.

BERRIA: Eskaera inprimakian eskatzailearen zein zuzendariaren curriculum-datuak eskatzen dira eta, gainera, bien CV-ak aurkeztu behar ditugu. Beharrezkoak al dira agiri biak?

Bai. Ebaluaziorako onartutzat jotzeko, eskabidea bere osotasunean egon beharko du beteta, paperean eta digitalki aurkeztu beharreko dokumentazio guztiarekin batera.

Nola aurkeztu behar dut eskaera?

Eskatzaileek web gunean eskuragai dagoen eskari inprimakia bete behar dute. Behin bete ondoren, ondoren adierazitako dokumentazioa atxiki beharko dute adierazitako formatuan. Ez da beharko gorritz markatutako formatuak agertzea:

DOKUMENTAZIOA	PAPERA	PDF	WORD
Eskaera egiteko inprimakia			
Gradu, lizentziatura, arkitektura edo ingeniariartzako ikaslearen ziurtagiri akademikoa (*EZ da beharko masterrehoa aurkeztea)			
ANECaK emaniko batez besteko notaren ziurtagiria (*Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileen kasuan, besterik ez)			
Eskatzailearen CV			
NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia.			
Espainian bizi eta lan egiteko administrazio baimenaren kopia, indarrean dela eskaera egiteko unean (*Europar Batasunetik kanpoko eskatzaileentzat, beste inorentzat ez)			
Lan bizitzaren ziurtagiria			
Euskararen jakite maila egiaztatzeko ziurtagiria			
Tesi zuzendarien curriculum vitae laburtuak.			
Zuzendariaren doktore titulua (*Defentsa 1999 eta 2010 artean egiaztatu nahi denean, bestela ez)			
Erantzukizun adierazpena			
II. eranskina			

(*4.4 oinarrian jasotako kasuetarako, besterik ez)

Dokumentazio hau UPV/EHUren erregistroetan aurkeztuko da edo posta zerbitzuaren edozein bulegotan, gutunazal irekian bertako pertsonalak eskariaren lehendabiziko orria zigilatuko badu.

UPV/EHUraino joan behar al dut dokumentazioa paperean aurkeztera?

Ez. Hautagaiak eskaera posta zerbitzuaren edozein bulegotatik bidal dezake, maiatzaren 17ra arte (hori barne). Horretarako, dokumentazioa gutun-azal ireki batean eraman beharko du eta posta bulegoko langileek eskaeraren lehenengo orria zigilatzen dutela bermatu beharko du, dokumentazioaren aurkezpen data adieraziz. Ondoren, dokumentazioa posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

*Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza
Ikerkuntzarako deialdien atala
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa, z.g.
48940 Leioa (Bizkaia)*

Familiartekoren batek aurkeztu al dezake eskaera nire ordez?

Bai.

Non daude UPV/EHUko erregistro bulegoak eta zein da bertako ordutegia?

Erregistro bulegoetarako buruzko informazio guztia honako esteka honetan kontsulta daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Zer ordura arte egongo dira irekita erregistro bulegoak maiatzaren 27an, alegia, aurkezteko epearen azken egunean?

Erregistro bulegoak egun horretan 13:00etan itxiko dira.

Dokumentu guztiak epearen barruan entregatu ezin izango banitu, nire eskaera atzera botako al litzateke?

Ez, baldin eta gutxienez eskaeraren lehenengo orria epearen barnean erregistratzen baduzu. Ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak zuzenketen zerrenda argitaratu eta 10 egunen epea irekiko du falta zaizun dokumentazioa aurkezteko. Epe hori amaitutakoan, ezin izango da beste dokumentazio gehigarri bidali eta ez da aurkeztu gabeko dokumentaziorik berriz erreklamatu. Beraz, osatu gabeko eskaerak bertan behera uzten direla ulertuko da.

ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Aurkeztu beharreko dokumentuek jatorrizkoak behar dute izan ala konpultsatuak?

Ez, fotokopiak aurkez daitezke. Laguntza eskuratzen baduzu, kontratua sinatu aurretik jatorrizkoak aurkeztu beharko dituzu, egiaztatzeko. Jatorrizkoak

aurkeztan ez badira edo alegatutako merezimenduak egiaztatu ezin badira, onuradunak laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiri bat aurkeztu al dezaket?

Ez, alegatutako merezimenduek 2016ko maiatzaren 27a baino lehen eskuratutakoak behar dute izan.

Non eskatu behar dut Lan Bizitzaren Ziurtagiria?

Gizarte Segurantzaren edozein bulegotara joanda edo esteka honetara sartuta eska dezakezu:

<https://w6.seg-social.es/SSC/SwscSeControlador?opcion=1>

Tramite hau dohainekoa da.

Lan Bizitzaren Ziurtagiria aurkeztu behar al dut inoiz lanik egin ez badut ere?

Kasu horretan, Gizarte Segurantzaren edozein bulegotara joan eta lan kontraturik izan ez duzula egiaztatzen duen ziurtagiri bat eman diezazutela eskatu behar duzu.

Zer kasutan aurkeztu behar da ANECaren batez besteko notaren ziurtagiria?

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileen kasuan eskatuko da, ez beste inoiz. Ziurtagiria honako esteka honen bitartez eska daiteke:

https://notasmedias.aneca.es/anonymous_requests/new

Izapideak 20 euro gehi BEZaren kostua izango du.

ETIKA BATZORDEAREN TXOSTENAK

Ikerketarako Etika Batzordearen aldeko txostena aurkeztu behar dut eskaerarekin batera?

Ez, baina ezinbestekoa da eskaeran zeure tesi proiektuari dagokion aukera marka dezazula. Laguntza lortuz gero, kontratua sinatu aurretik aurkeztu beharko duzu txostena.

Non eska dezaket Ikerketarako etika batzordearen txostena, behin aurkeztu behar dudala ziurtatzen didatenean?

Tramitea online egin dezakezu [esteka](#) honetan sakatuz.

HIZKUNTZAK

BERRIA: Zein hizkuntzatan aurkeztu beharko nuke eskaria modalitate bietan parte hartu nahi izanez gero?

Euskaraz, 10.3 oinarriko atalen gatzelerarako edo ingelesezko itzulpena erantsiz.

BERRIA: Eskaria ingelesez aurkeztu ahal dut?

I. Modalitatean ingelesez aurkeztu dezakezu zure eskaria. II. Modalitatean soilik edo modalitate bietan parte hartu nahi izanez gero, 10.3 oinarriko atalen euskarazko itzulpena erantsi beharko diozu.

BERRIA: Nire eskaera I.Modalitatean soilik eginez gero, 10.3 Oinarrian aipatutako atalak ere euskaraz edo ingelesez aurkeztera behartuta nago?

Bai. Ebaluaziorako onartutzat jotzeko, eskabidea bere osotasunean egon beharko du beteta, euskarazko edo ingelesezko bertsioak barne, paperean eta digitalki aurkeztu beharreko dokumentazio guztiarekin batera.

BERRIA: Deialdi honetan parte hartzeko nahitaezkoa al da euskararen ezagutza egiaztatzea?

II. Modalitatean hartzeko bakarrik. I. Modalitatean meritua izango da eta ondoko puntuazioarekin baloratuko da:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.

Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk. Era berean, ez dira kontuan izango 2016ko maiatzaren 27tik aurrera eskuratutako ziurtagiriak.

ZUZENKETA: Eskaera euskaraz aurkeztu ahal dut?

I. modalitaterako eskariak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahal dira.

II. modalitaterako eskariak euskaraz aurkeztu behar dira.

Euskaraz idatzitako eskariekin batera eskariko ondoko atalen ingeles edo gaztelaniazko bertsioak aurkeztu beharko dira:

- a. Ikerketaren helburuko gaiaren aurrekariak eta egungo egoera eta bibliografia.
- b. Ikerketaren helburu orokorrak.
- c. Metodologia eta egin beharreko ikerketa eginkizunak.
- d. Tesi zuzendariaren kalitate zientifikoa ikerketaren helburuko gaien.
- e. Ikerketarako behar diren azpiegituren erabilgarritasun eta kalitatea
- f. Eskatzailearen esperientzia.
- g. Deskribatu nahi diren bestelako alderdiak.

Gaztelera idatzitako eskariekin batera eskariko ondoko atalen ingeles edo euskarazko bertsioak aurkeztu beharko dira:

- a. Ikerketaren helburuko gaiaren aurrekariak eta egungo egoera eta bibliografia.
- b. Ikerketaren helburu orokorrak.
- c. Metodologia eta egin beharreko ikerketa eginkizunak.
- d. Tesi zuzendariaren kalitate zientifikoa ikerketaren helburuko gaien.
- e. Ikerketarako behar diren azpiegituren erabilgarritasun eta kalitatea
- f. Eskatzailearen esperientzia.
- g. Deskribatu nahi diren bestelako alderdiak.

DEIALDIAREN IZAPIDETZA

BERRIA: Noiz ebatziko da deialdi hau?

Argitalpen datatik hasita sei hilabeteko epean ebatziko da deialdia.

BERRIA: Nola jakinaraziko zait eskaeran zerbait zuzendu edo dokumentazio gehiago agertu behar dudan?

Zuzendu beharreko eskarien zerrenda argitara emango da Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean, gehien dela, maiatzaren 27tik aurrerako 20 lanegunen epean.

Jarraian, argitaratu egin dela jakinaraziko zaie eskatzaile guztiei posta elektronikoen bidez, eskariaren formularioan harremanetarako zehaztu den helbide elektronikoen bidez. Hortaz, gomendagarria da eskatzaile guztiek sarri kontsultatzen duten helbide elektronikoa bat adieraztea. Hamar egun baliiodunen epe hau iraganik, ulertuko da osatu gabeko eskariak bertan behera utzi direla.

BERRIA: Zer nolako dokumentazioa agertu ahal da zuzentzeko epean?

Adierazitako akats edo eskasia zuzendu ahal izango dira besterik ez, eskaria osorik berritu edo eskatu ez den dokumentaziorik ezin aurkeztuko delarik.